BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5249

AGINDUA, 2015eko abenduaren 1ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, Mondragon Unibertsitateko masterreko ikasketa ofizial batzuk ezartzea eta beste batzuk kentzea baimentzen da.

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez aldatuak) 8.2 artikuluan dioenez, estatuko lurralde osorako balioa izango duten titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzak ezartzea eta kentzea autonomia-erkidegoak erabakiko du, bai Gizarte Kontseiluak proposatuta, bai erkidegoaren beraren ekimenez, kontseilu horren adostasunarekin, eta, betiere Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak txostena eman ondoren.

Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeak, otsailaren 25ekoak, bere 51. artikuluan arautzen du Europako unibertsitate-eremura egokitzea. Unibertsitate-gaietan eskumena duen sailak eta unibertsitateek ikasketa-planetan eta kredituen eta balorazioen sistemetan beharrezkoak diren egokitzapenak bultzatuko dituzte eta, horiekin batera, beharrezkoak diren gainerako neurriak hartuko, euskal unibertsitate-sistema Europako unibertsitate-eremuan sartzeko eta titulazioaren Europako gehigarriaren diploma emateko.

Irakaskuntza ofizialak nola ezarri araututa dago Unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzen dituen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan (uztailaren 2ko 681/2010 Errege Dekretuak aldatuta), eta Gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuan.

Hain zuzen ere, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, 8. artikuluan, xedatzen du estatu osoan izaera ofiziala eta baliozkotasuna duten tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketak hiru ziklotan egituratuko direla: gradua, masterra eta doktoregoa izenekoetan, hain zuzen.

Urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuak 16. artikuluan arautzen du zer prozedura jarraitu behar den gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeko baimena lortzeko. Artikulu horren arabera, Unibertsitate Kontseiluak egokiak direla ziurtatzen duen ebazpena eman ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak agindu-proposamena prestatu behar du, gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzea baimentzeko.

2015eko urtarrilaren 29an, Mondragon Unibertsitateko Kontseilu Errektoreak 2015-2016 ikasturtean masterreko lortzeko ikasketak ezartzea onartu zuen.

Unibasq-Kalitate eta Ziurtapenaren Ebaluazio Agentzia Nazionalaren ebaluazio-txostena jaso eta gero, Hezkuntza Ministerioko Unibertsitate Kontseiluak aldeko ebaluazio-txostena eman du; zehazki, Mondragon Unibertsitateak proposatutako masterreko ikasketa ofizialak ezartzeari dagokiona; ikasketa horiek II. eranskinean jasotzen dira.

Hori dela-eta, Gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko unibertsitate-ikasketa ofizialak nola ezarri eta kendu arautzen duen urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 16. artikulua aplikatuz, eta proposamena Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari 2015eko maiatzaren 25eko bilkuran jakitun jartzeko aurkeztu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– I. eranskinean jasotako masterreko ikasketa ofizialak kentzeko baimena ematea. Urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuko 18.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egin beharko da kentze hori (Gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko unibertsitate-ikasketa ofizialak nola ezarri eta kendu arautzen da dekretu horren bidez).

2. artikulua.– Automatikoki baimena ematea II. eranskinean jasotako graduko ikasketa ofiziala ezartzeko, bete egin baita Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 8.2 artikuluan eta urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 25.8 artikuluan xedatutakoa (1393/2007 Errege Dekretua aldatu egin zen uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuaren bidez).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.– Agindu hau Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari jakinaraztea, Gobernuari proposa diezaion tituluak ofizialtzea eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan inskribatzea, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ditzan.

Bigarrena.– Lau urte igaro aurretik berritu beharko da baimendutako master-ikasketa ofizialen egiaztapena, hasierako ikuskapen-egunetik hasita. Urriaren 16ko 205/2012 Dekretura egokituko da berriztapen hori; dekretu horren bidez xedatzen baitira prozedura eta epeak gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-tituluen egiaztapena berritzeko.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 1a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

UNIBERTSITATE MASTERREKO TITULAZIOAK KENTZEA

Kodea	Tituluaren izena	Adarra
4311786	MBA-Enpresa Zuzendaritzan Unibertsitate Masterra	Giza Zientziak eta Zientzia Juridikoak
4313499	Turismo Aktiboko Enpresen Sorrera eta Kudeaketan Unibertsitate Masterra	Giza Zientziak eta Zientzia Juridikoak

II. ERANSKINA

UNIBERTSITATE MASTERREKO TITULAZIOAK EZARTZEA

Kodea	Tituluaren izena	Adarra
4315602	Erakundeen nazioartekotzean Unibertsitate Masterra	Giza Zientziak eta Zientzia Juridikoak
4315711	MBA-Enpresa Zuzendaritzan Unibertsitate Masterra	Giza Zientziak eta Zientzia Juridikoak